



## Hau da aste honetako euskararen pilula!

### "*acumulación*" euskaraz, nola?

#### Acumulación > metatze, metaketa

Horrela definitzen du **akzio-metaketa** edo **akzioak metatze** (acumulación de acciones) 2019ko Bake Epaitegiak Hiztegiak:

Elkarren artean loturaren bat duten uziak prozedura berean izapidetzea; uziak epai berean ebazteko egiten da, demandatzaileak hala eskatu duelako edo demandatuak errekonbentzioa jarri duelako.

Bestalde, metatze mota asko daude. Hona hemen batzuk:

acumulación de autos > autoak metatze, autoen metaketa

acumulación de ejecuciones > betearazpenak metatze, betearazpen-metaketa, exekuzioak metatze

acumulación de penas > zigorrak metatze, zigor-metaketa

acumulación de procesos > prozesu-metaketa, prozesuak metatze

acumulación de recursos > errekurtsuak metatze, errekurtsu-metaketa

#### ADIBIDE BATZUK

- “Óigase a las demás partes personadas en este recurso por término de CINCO DÍAS sobre la posible **acumulación** del presente recurso contencioso-administrativo, con el/los siguiente/s, que se encuentran en trámite en este Juzgado” > “Eman bekie BOST EGUNeko epea errekurtsu honetan pertsonatutako gainerako alderdiei, egoki deritzotena azal dezaten administrazioarekiko auzien errekurtsu hau eta epaitegi honetan izapidetzen ari diren honako hauek **metatzeko** aukerari buruz”
- “No afectarán a la cuantía de la demanda, o a la de la clase de juicio a seguir por razón de la cuantía, la reconvenición ni la **acumulación de autos.**” > “Demandaren muntari edo muntagatik bideratu beharreko judizio-motari ez dio eragingo ez errekonbentzioak ezta **autoen metaketak** ere.”
- “Será competente para dirimir las discrepancias en materia de **acumulación de procesos** el tribunal inmediato superior común a requirente y requerido.” > “**Prozesu-metaketa** gai duten desadostasunak konpontzeko eskudun izango da errekeritzailearen eta errekerituaren goragoko hurbileneko auzitegi erkidea.”

#### ITURRIA

- [Epaitegietako lexikoa eta eredu judizialak](#)
- Epaibar
- [Euskalterm](#)